Natura, ongizatearen oinarria
Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuak

# HARKAITZAK

## DESKRIBAPENA

Lurzoruaren ezaugarriak direla-eta landaredirik ez duten habitatak edo landaredia urria den habitatak biltzen dira unitate honetan.



Harkaizti silizeoak

## EUNIS HABITATAK

| EUNIS KODEA | EUNIS Habitata |
|---|---|
| H2.52 | Hartxingadi silizeoetako landaredia |
| H2.6 | Zona epeletako hartxingadi kalkareoak |
| H2.64 | Hartxingadi kalkareoetako landaredia |
| H3.1 | Harkaiztegi silizeoetako landaredia |
| H3.2 | Harkaizti basikoetako landaredia |
| H3.1(X) | Harkaizti silizeoetako plataforma erdi-biluzietako landaredia |
| H5.31 | Landaredia urriko eremuak, higadura naturalaren ondorioz sortuak |
| H5.5 | Eremu erre berriak |
| H5.6 | Lur zapalduak |

## BANAKETA

Unitate horrek 6.525 ha-ko azalera hartzen du; hau da, EAEko azaleraren % 0,90.




## EMANDAKO ZERBITZUAK

Natura, ongizatearen oinarria

Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuak

| HORNIDURA-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? | ERREGULAZIO-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? | KULTURA-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **Klima erregulatzea**  | Harkaitzak garrantzi handiko karbono-hustulekuak dira, harkaitz karbonatatuetan karbono ugari baitago. | **Aisialdiko jarduerak**  | Ekosistema hauetan, aisialdiko jarduera ugari egin daitezke (mendi-ibiliak egin, eskalada, etab.). |
| **Ur geza**  | Gure lurraldeko kareharrizko multzo zabal eta trinkoetan akuifero garrantzitsuak daude, eta, haiei esker, edateko ura eskuratzen dugu. | **Airearen kalitatea erregulatzea**  | Landarediak, eskasa bada ere, eta beste organismo batzuek aireko kutsatzaileak atxikitzen dituzte, eta haren kalitate ona bermatzen. | **Jakintza zientifikoa**  | Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak. |
| | | **Ura erregulatzea**  | Azaleramendu karstikoak oso eremu iragazkorrak dira, euri-uraren infiltrazioa errazten dute, bai eta akuiferoak betetzea ere, ur kantitatea erregulatuz. | **Ingurumen-heziketa**  | Ekosistema hauetan, ingurumen-heziketarekin lotutako programa ugari abiarazi dituzte tokian tokiko interpretazio-zentroek. |
| **Lehengai geotikoak**  | Harkaitzetatik material ugari lor daitezke, eta zenbait gauzatarako erabili: industriarako, hornidurak lortzeko, kareharria egiteko, etab. | **Higadura kontrolatzea**  | Ekosistema hauetako euri-uraren infiltrazioak azaleko isurketak eta lurzoruaren higadura erregulatzen laguntzen du. | | |
| | | **Lurzoruaren emankortasuna**  | Landarediak, eskasa bada ere, eta lurzoruko organismoek ekosistema hauetako emankortasuna bermatzen dute. | **Paisaien estetikaz gozatzea**  | Ekosistema hauek gozamen-iturri ditugu, beren balio estetikoa eta kulturala dela tarteko. |

Natura, ongizatearen oinarria

**Euskadi**ko Ekosistemen Zerbitzuak

| HORNIDURA-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? | ERREGULAZIO-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? | KULTURA-ZERBITZUAK | ZER HORNITZEN DUTE? |
|---|---|---|---|---|---|
| **Gene-gordailua**<br> | Dibertsitate genetiko handikoak dira ekosistema hauek, eta hori dela eta, arrisku-egoeran dauden zenbait espezie endemikok bertan hartzen dute babes. | **Naturako nahasketak erregulatzea**<br> | Ekosistema hauetako euri-uraren infiltrazioak azaleko isurketak eta uholdeak erregulatzen laguntzen du. | **Identitate kulturala eta toki batekoa izatearen sentipena**<br> | Gure elezahar garrantzitsuenak ekosistema hauetan gertatzen dira. Adibidez, Mari, euskal mitologiako pertsonaia nagusia, gure inguruko gailurretan bizi da. |
| **Sendagai naturalak printzipio aktiboak**<br> | Harkaitzetako zenbait espezie usain-belar nahiz sendabelartzat erabil daitezke. | | | | |
| | | **Polinizazioa**<br> | Ekosistema hauetan espezie ugari daude, eta horri esker, polinizazio-prozesuetan elikagai ugari izaten da. | | |